



14

# Euskararen sentsibilizaziorako pilula:

euskara hobetzeko aholkuak, euskarari  
buruzko berriak, euskal kultura eta askoz  
gehiago!


1

# Batzuk joan, besteak etorri

2025a izango da **Gatiburen** azken urtea eta 2025eko abenduan emango dio amaiera 25 urteko ibilbideari kontzertu erraldoi batekin. BECen izango da emanaldia, 2025eko abenduaren 13an. Aurtengo irailaren 23an jarriko dituzte sarrerak salgai, taldearen webgunean, 08:00etan. Beste kontzertu batzuk ere emango dituzte aurrez, eta 'Agur esan barik' deituko diote birari.



Bestetik, azken urteetan ezagun egin den **Chill Mafia** taldeak ere berriki esan du agur. Adio gisa, ordea, 'Agur Eta Ohore X Allá Va La Despedida' izeneko bederatzi kantako diskoa kalerau dute eta Zenbait kontzertu iragarri dituzte.



# Epaiketak euskaraz



Europako Kontseiluak epaiketak euskaraz egitea **babestu** du aldeetako batek hala eskatzen badu.

Europako Kontseiluak proposatu du legez ziurtatzea Hego Euskal Herrian **epaiketak euskaraz egiteko aukera, aldeetako batek hala eskatzen badu**. Agintariei neurriak hartzeko eskatu die eskubide hori praktikan jar dadin, Estatu espainiarrak sinatua duen Europako Hizkuntza gutxituen Gutuna betez.

Europako Kontseiluak neurriak eskatu dizkie Estatu espainiarreko agintariei Hego Euskal Herrian epaiketak euskaraz egiteko aukera zabal dadin, aldeetako batek hala eskatzen badu. Euskara erabili den prozesu judizialen **erregistro bat** egiteko ere galdegin du.

Informazio gehiago [hemen](#)



# Gaztelaniazko 'ya' nola da euskaraz?

- **ladanik, ja, jada** (\*iadanik, \*ia, \*iada) baliokideak dira, eta hirurak ageri dira Euskatzaindiaren Hiztegian:
  - Ya no vive aquí: **jadanik ez da hemen bizi**
- Euskara Batuaren Eskuliburuak **ba\_** aditz trinkoei erantsita erabil daitekeela, eta **∅** aditz perifrastikoa eskuarki esaldiaren hasieran:
  - Ya viene tu hermana: **zure ahizpa badator**
  - Ya ha venido: **etorri da**
- *Bai!* / Baita zera ere!
  - ¡ah ya!, fuiste tú el que llamó: **a bai!, zeuk deitu zenuen**
  - ¡ya!, ¡y encima tengo yo la culpa!: **baita zera ere!, gainera errua nik izango dut!**
- Hasi/ekin: ¡preparados, listos, ya!: **zuen lekuetara, prest, hasi!**
- Orain, berehala: **berehala joango naiz!**

# 4

## 'Desagertuta', telesail berria

**Pausoka** eta **Zebra Producciones** ekoiztetxeen fikzio bat da. Zortzi atalak **Primeran** eta Netflix plataformetan estreinatuko dituzte, 2025. urtean.

Istorio hau kontatzen du lanak: lagun talde batek gau bat pasatuko du mendian, eta haietako bat desagertu egingo da. Desagertzearen aurretik, Jon gazteak birala bihurtuko den bideo bat jarriko du Interneteko sare sozialetan. Hori izango da utziko duen arrasto bakarra.

Jon Lukas aktoreak jokatzen du protagonistaren rola. Ane Rotek, Ainhoa Larrañagak, Ainhoa Azpitartek, Asier Rikartek, Unai Aranak eta Julen Taboadak jokatzen dituzte beste gazteen pertsonaiak.





# Mila esker!

## Hurrengo Pilulara arte

**Proposamenak, iradokizunak, zalantzak...**



**[i.lizeaga@elhuyar.eus](mailto:i.lizeaga@elhuyar.eus)**